



ANDOAINGO UDALA



Ekintzaz beteta datorkigu Iraila

Atzean utzi ditugu opor giroko egunak honezkero eta hasi gara ikasturte berrian. Horrek ez du esan nahi, ordea, denbora libreaz gozatzeko aukerak izango ez ditugunik; kontrakoa: ekimenez lepo datorkigu aurtengo iraila. Datorren asteburua, irailak 16 eta 17koa, hain zuzen, askotariko publikoarentzako aukerak eskainiko dira:

Irailak 16an, larunbatean, hirugarrenez, Larramendi Kultur Bazkunak antolatuta, **Andoingo Gudua** antzeztuko dute hainbat herritarrek herriko kaleetan barrena. Duela 180 urte, I.Karlistadan, karlisten eta liberalen artean Andoainen gertatutako borrokaldia da antzeztuko dena. Ikuskizuna 17:15ean hasiko da, herriko bi puntu ezberdinetan: Zumea plazan elkartuko dira karlistak eta Goikoplazan, aldiz, liberalak. Tokian bertan antzezpen laburrak egin ostean, SantaKruz ermitaren parean izango dute lehen borrokaldia, ondoren Goikoplaza aldera abiatzeko.

Gure herriko historian gertatutako borrokaldirik lazgarrienetakoa da Larramendi Kultur Bazkunaren gidaritzapean antzezten dena, andoaindar askoren partaidetzaz gauzatzen dena, eta zalantzarik gabe, ikustea merezi duena.

Bestalde, hurrengo egunean, irailaren 17an, II. Plazaola Natur Bideko Maratoi Erdia eta Maratoia ospatuko da. Zehazki bi kirol proba ospatzen dira aldi berean:





ANDOINGO UDALA



1. Plazaolako Maratoia: *Lekunberritik-Andoainera* (42Km)
2. Plazaolako Maratoi Erdia: *Leitzatik -Andoainera* (26Km)

Froga interesgarriak dira oso, naturak eskaintzen dituen aukerez gizatzeaz gain, bi lurraldeen arteko batura suposatzen duelako; hain juxtu, Nafarroa eta Gipuzkoa artean.

Aurreikusten da lehen lasterkariak 10:15-10:30etarako helmugara iristea, Goikoplazan. Sari banaketa 12:00etan izango da.

Aurten, gainera, ekintza osagarri moduan, artisau eta tokiko produktuen azoka, Euskal Sagardoaren dastaketa postua ets Basatxarriko produktuak egongo dira Goikoplazan bertan, 10:00etan hasi eta 14:00ak arte.

Andoainen, 2017ko irailaren 8an

